BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

5209

EBAZPENA, 2011ko irailaren 23koa, Finantzetako zuzendariarena. Honen bitartez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariei eskuordetzan eman zaizkie ikasleek atzerriko hizkuntzak hobeto ikasteko programen eta testuliburuen kudeaketa solidarioa egiteko programen bermeekin zerikusia duten zenbait eskumen.

Euskal Autonomi Elkarteko Finantzen azaroaren 8ko 8/1996 Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruzaintza-arloko aginpidea duen sailari dagokio EAEko Administrazio Orokorraren aldeko bermeak gordetzea, kudeatzea, ematea eta itzultzea. Berme horiek hainbat modutan eratu daitezke: abaletan, fidantzetan, kauzio-aseguru polizetan, balore-gordailuetan eta kontu-oharren bidez edo beste antzekoren baten bidez erregistratutako balore-ibilgetzeetan. Hain zuzen ere, Finantza Zuzendaritza da arlo horretan eskumena duen organoa, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen urriaren 20ko 568/2009 Dekretuaren 14.c) artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasleek atzerriko hizkuntzak hobeto ikasteko programak kudeatzen ditu. Batzuetan programa horiek doakoak izaten dira, baina nahitaezkoa izaten da eskola-orduen % 80 baino gehiagotara bertaratzea. Bertaratzea bermatzearren, eskudirutan ordaindutako gordailua eskatzen zaie ikasleei.

Halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak testuliburuen edo antzekoen kudeaketa solidarioa egiteko programa bat ere badauka. Programa horrekin, liburu eta curriculum-material horiek behar bezala erabili eta zainduko direla bermatu nahi da eta, horrexegatik, eskudirutan ordaindutako gordailua eskatzen da programan izena ematen denean.

Programa biak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoek kudeatzen dituzte.

Administrazio-izapideak arintzearren, eta ikasleek atzerriko hizkuntzak hobeto ikasteko prometarako eta testuliburuen eta antzekoen kudeaketa solidarioa egiteko prometarako eskudirutan ordaindutako gordailuak egin eta berreskuratzeko modua erraztearren, egokia da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 13. artikuluan aurreikusitako mekanismoa erabiltzea, hau da, eskumenak eskuordetzan ematea.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariei eskuordetzan emango zaizkie ikasleek atzerriko hizkuntzak hobeto ikasteko prometarako eta testuliburuen eta antzekoen kudeaketa solidarioa egiteko prometarako eskudirutan ordaindutako gordailuak gorde, kudeatu eta itzultzeko eskumenak.

2. artikulua.– Berme horiek eskudirutan ordainduko dira, Finantza Zuzendaritzak izendatuko dituen baimendutako kontuetan.

3. artikulua.– Organo eskuordetuek, eskumenak gauzatzean, zorrotz bete beharko dituzte arau aplikagarriak, eta batez ere Euskal Autonomi Elkarteko Finantzen azaroaren 8ko 8/1996 Legea, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretua eta Gordailuen Kutxa Nagusiaren Araudia onartzen duen otsailaren 7ko 161/1997 Errege Dekretua. Halaber, organo eskuordetzaileak eman litzakeen jarraibide edo zirkularretan xedatutako guztia ere bete beharko dute.

4. artikulua.– Eskumena behar bezala gauzatzen dela egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen ikuskapenak egin ahal izango ditu organo eskuordetzaileak. Halaber, organo eskuordetuek jasotako eta itzulitako bermeei buruzko urteko txosten bat bidaliko diote Finantza Zuzendaritzari, zehaztutako irismen eta zehaztasunarekin.

5. artikulua.– Organo eskuordetzaileak edozein momentutan baliogabetu ahal izango du eskuordetza, edo edozein gaitako eskumenak bereganatu.

Azken xedapena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 23a.

Finantzetako zuzendaria,
MIGUEL BENGOECHEA ROMERO.